


ESKOLA-JAZARPENAREN PROTOKOLO BERRIZTUAREN GAKOAK





- Jazarpena aurreikusi
- Jazarpena jasotzen ari den ikaslea babestu
- Inplikaturako ikasleei erantzun hezigarria eman
- Ikastetxeari (zuzendaritza, irakasleak, BAT Taldea, familiak...) orientazioa eta segurtasuna eman



ESKOLA JAZARPENA GIDA ETA PROTOKOLOA

- GIDA (Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko Gida) argitaratu zen 2004-05 ikasturtean. 2007ko maiatzean aldatu zen lehenengo aldiz. Ondoren beste bi aldaketa izan ditu: 2011n eta 2015ean.
- PROTOKOLOA: Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpena, EAAko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gertatzen diren eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraibideak arautzen dituenaren 1. bertsioa 2012-13 ikasturtean argitaratu zen, bigarrena 2015-16ean. Azkena orain dela egun gutxi plazaratu da (2019-10-11).



PROTOKOLO BERRIZTUAREN ALDE NABARMENENAK

Ikastetxeak kontuan izan behar ditu:

- ✓ Printzipioak: berehalakotasuna, babesa, elkarlana, konfidentzialtasuna, diskrezioa, zuhurtzia eta “umiltasuna”
- ✓ Eskola jazarpenarekiko sentsibilizazioa: jazarpen-zantzuen aurrean arreta jarri.
- ✓ Protokoloa ulertzeko era sistemiko-ekologikoa, beti elkarbizitza positiboa eraikitzeari begira. Protokoloaren alderdi formalak (eranskinak, epeak, unek, etab.) ezin dira funtsaren gainean ezarri. Bateragarriak izan behar dute.
- ✓ Urrats bakoitzaren izaera eta helburuak.
- ✓ BG eta Ikuskaritzaren arteko elkarlana.



- ✓ *Epeak: Errespetatu egingo dira urrats bakoitzean adierazitako epeak. Ezarritako epeak ezin direla bete irizten badu zuzendariak, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, Hezkuntzako Ikuskaritzaren oniritzia eskatu beharko du.*
- ✓ **Dokumentuen bidalketa:**
 - Ikuskaritzara igorriko dira:*
 - *0. eta I. eranskinen kopiak. Jatorrizkoak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura egongo dira.*
 - *A eta B txostenak, jatorrizkoak.*
 - Berritzeguneko Zuzendaritzara igorriko dira:*
 - *0. eranskinen kopiak.*
 - *B. txostenaren kopia.*
- ✓ **Zuzendariaren zereginak:** *bizikidetzari buruzko ardura nagusia. Beraz, protokoloa erabiltzen dela bermatuko du eta haren garapena koordinatu, eta inplikaturako eragile guztien esku-hartzeen hezkuntza-izaera eta legezotasuna ere ziurtatuko ditu.*



- ✓ BAT taldekideen zereginak: *gidatuko ditu ustezko jazarpen kasuei erantzuteko jarduketak eta bizikidetza positiboa eraikitzeko proposamenak egingo ditu, ikastetxeko Bizikidetza-Behatokiaren orientazioekin bat etorrira. Honako hauek osatuko dute taldea: zuzendariak, ikasketa buruak, orientatzaile/kontsultoreak eta irakasle batek, Hezkidetzaren arduraduna izango den irakasleak.*



PROTOKOLO BERRIZTUAREN ESKEMA

Protokoloaren eskema aldatu egin da.....

Hona hemen [eskema berria](#)



PROTOKOLOA URRATSEZ URRATS

0. ERANSKINA

1 URRATSA.- Esku-hartze eskaera. Protokoloaren hasiera

- Hasierako unea, protokola martxan jartzekoa. Esku-hartze eskaeraren aurrean BAT taldearen lanaren hasiera.
- **Lankidetzaren unea, ikastetxeko arduradunek arreta osoa emateko unea** (eskaera aurkeztu duenari, deskribatutako egoerei, ustezko biktima babesteko neurriei, irakasle/zaintzaileen arteko koordinazioari).
- BGko zuzendariari eta erreferentziako ikuskariari 0. Eranskina bidaltzeko unea.
- Eskaeraren iturriari dagokionez:

Eskola komunitatearen barneko partaideen (irakasleak, ikasleak, zaintzaileak...) papera indartu egin da Protokolo berrian. Horrez gain eskaera etor daiteke familia, ikuskaritza, fiskaltza, epailearen....partetik.

BERRIA: 0 Eranskina moldatu da, barne eskaerei erantzuteko. Kasu hauetan ez da beharrezkoa familiari berehalako informazioa ematea.



I. ERANSKINA

- 2 URRATSA.- Protokoloaren lehenengo urratsak. Irakasle-taldearen bilera. Protokoloarekin jarraitu edo ez erabakitzea ()
- Ikerketak era sistematikoa hasteko unea (Lan tresna egokiak, BGko eta Ikuskaritzako erreferenteen aholkularitza).
 - **Lehenengo azterketa egin eta erabakia hartzeko unea, beti datu eta ebidentzietan oinarriturik; inoiz ere ez sinesmen, aurreiritzi, uste hutsetan.**
 - Protokoloa ixteko (ezinbestekoa ikuskariaren oniritzia) edo jarraitzeko unea.
 - Ez ahaztu!: ustezko biktimaren babesa, konfidentziasuna eta familiarekin elkarlana.
 - Epea: 0 Eranskinetik 5 eskola-egun.



A TXOSTENA

3 URRATSA.- Informazio bilketa, azterketa eta balorazioarekin jarraitzea. Familiei jakinaraztea

- **Ikerketak eta informazio-jasoketa era sistematiakoan jarraitzeko unea** (Lan tresna egokiak, BGko eta ikuskaritzako erreferenteen aholkularitza).
- **Datu guztien azterketa ikuspuntu ezberdinetatik.**
- **Ustezko jazarpena baloratzeko unea, beti datu eta ebidentzietan oinarrituta; inoiz ere ez sinesmen, aurreiritzi, uste hutsetan.**
 - BAI: B Txostena
 - EZ: protokoloa itxi, beti ikuskariaren oniritziarekin. Neurri hezigarriak ezarri.
- **Baiezkoetan: familia guztiekin komunikatzeko unea.**
- (Ustezko) biktimaren babesa, familiarekin elkarlana.
- **Berria: Epea I. Eranskinetik: 15 eskola-egun = 3 aste.**



B TXOSTENA

4 URRATSA.- Ekintza-plana, eskola-jazarpenaren ebidentziak daudenean

- Jazarpenaren jarraipena egiteko unea.
- **Inplikaturiko ikasleekin edota gelekin jarduketa-plana sortu eta ezartzeko unea, bizikidetza positiboa berreskuratzeko asmoz.**
- Komunikazioa familia guztiekin.
- Epea: 22 eskola-egun A txostenetik.

